



HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2016/10/19

BILERA ZENBAKIA:9

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK:Amaia; Iñigo, Rosi, Ekaitz, Ainhoa, M^aJose, Joxeluis, Maddi, Maite

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. KULTUR EKINTZEN BALORAZIOA ETA AURRERA BEGIRAKO EKINTZAK. EGINDAKOAK

- Pintxo potea. Balorazioa ona. Datorren urterako hasiera ordua adostea eta partaide guztiei jakinaraztea.Pantailetan hasiera ordua jarriko da.
- Aralarko gau magikoa. Eguraldi txarraren iragarpenak azken orduan jendearen desapuntatzea ekarri bazuen ere, urtero oso harrera ona duen ekintza da.
- Hegaluze ikastaroa. Ikastaroa luzatu bazen ere, azkenean bi egunetan, partaideak oso gustora eta beste ikastaro batzu egiteko prest azaldu dira. Aurrerago, prestatutako hegaluzearekin, meriendatxo bat egitea pentsatzen da. Sobratuko balitz gabonetako zestorako.
- Hip hip urri. Oso jendetsua eta oso giro onean, Itsasondotik Legorretara.

AURRERA BEGIRAKO EKINTZAK

- Azaroak 4. Auzolana plazako pareta zuritzen. Euskeraren aldeko murala egiteko.
- Azaroak 6. Mendi irteera udalak markatu duen bide berritik zehar.
- Azaroak 9, mermelada eta menbrillo ikastaroa. Arratsaldeko 6etan jubilatuta elkartean. Rosario eta Rosi arduratzen dira.




- Azaroak 18. Kantu afaria kuxkuxturekin.
- Azaroak 26. Antzerkia desentxufatuak.
- Abenduak 3, talo festa.

ELKARTE GUZTIEI HERRI BIZITZAREN HURRENGO BILERARAKO BETETA EKARTZEKO EGUTEGI BAT EMATEN ZAIE, HURRENGO URTERAKO AURREIKUSITAKO EKINTZEKIN. Herritarrei etxeetara banatzen zaien egutegian azaltzeko da.

2. EUSKERA

- Euskara ikastaroak. Aurten taldea ateratzea lortu da. Astelehena, asteartea eta asteazkena 14:30-16:30. Euskera taldetik udalak laguntza emateko orduan langabezi egoera nola kudeatu erabakitzeko proposamenak eskatzen zituzten. Herri bizitzatik egokiena, laguntzaren portzentaia langabezian egon denaren denboraren proportzioaren baitan ematea ikusten da.
- Murala. Euskararen egunerako plazan mural bat margotu nahi da, batez ere plazan euskararen erabilera bultzatzera bideratuta. Bozetoa egin da dago eta herri bizitzako kideei zein duten gustokoen ere bozkatu dute. Azaroaren 4ean auzolanean pareta zuritzea, ondoren Jorgek margotuko du. Bestalde arbel moduko bat izango du muralak, non ume eta helduen akatsik nabarmenenak agertuko diren eta erderakada hauen bertsio jatorra beste aldean. Honen mantentzea eta erabilpena eskolarekin elkarlanean egingo da.
- Bideo lan bat egiten ari dira, euskeraren erabileraren inguruko parodia bat. Amaituta badago talo festan proiektatuko da.
- Mintzalaguna. Zeuden taldeetatik bakarra geratzen da martxan eta asteroko hitzorduak ez badituzte ere, afari eta beste ekintza baztuetarako geratzen dira.
- Abenduaren 3rako (euskeraren eguna) ekintzak:



- Goizean korrika saioa euskeraren alde. Zerbait erreza eta parte hartzailea izatea nahi da.
- Eguardian agian bazkari bat egingo da larunbata dela aprobetsatuz. Egun berean talo jana ere badenez, erabaki gabe dago.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Kultura batzordea	Azaroak 16	
Hurrengo gaia: Itsasondo 2.0.	Azaroak 16	Maddi eta Maite
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera Azaroaren 16an, gaia Itsasondo 2.0. aldizkaria		